

**LAN-POLTSA HANDITZEKO
HAUTAKETA-PROZESUA:
“KUDEAKETAKO ESKALA TEKNIKOA
(KUDEAKETA OROKORRA)”**

LEHEN PARTEA – TEORIKOA

2019ko OTSAILAREN 1eko EBAZPENA

ARIKETA TEORIKOA

1. Espainiako Konstituzioaren 44. artikulua araberaz, botere publikoak:

- a) Zientzia eta ikerketa zientifiko eta teknikoak bultzatuko dituzte.
- b) Autonomia-erkidegoen federazioa onetsiko dute.
- c) Ez dituzte zigortuko ondare historiko, kultural eta artistikoaren aurkako erasoak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

2. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10. artikulua araberaz, autonomia-erkidegoak konpetentzia eskusiboa du:

- a) Ikerketa zientifiko eta teknikoan.
- b) Estatuaren jabetzapeko artxibategi, liburutegi eta museoetan.
- c) Jabetza intelektual eta industrialean.
- d) Ikerketa zientifiko eta teknikoan, Estatuarekin koordinazioan.

3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren araberaz, autonomia-erkidegoari dagokio Estatu legedia betearaztea gai honetan:

- a) Jabetza intelektual eta industrialean.
- b) Espetxe-legerian.
- c) Lan-arloko legerian.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

4. Herri Kontuen Euskal Epaitegia zuzenean honen mende dago:

- a) Hiru lurralde historikoetako batzar nagusiak.
- b) Eusko Legebiltzarra.
- c) Eusko Jaurlaritza.
- d) Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila.

5. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko lehenengo Ekonomi Ituna onetsi zuen maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen 17. artikulua araberaz, Sozietateen gaineko Zerga da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik aritzen diren sozietateentzako zerga hitzartu bat, araudi autonomokoa.
- b) Estatuaren eskumen eskusibokoa.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik aritzen diren sozietateentzako zerga hitzartu bat da, araudi komunokoa.
- d) Ekonomia Itunak Sozietateen gaineko Zerga ez du hartzen aplikazio-eremutzat.

6. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua araber, abstenitzeko arrazoi da:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaien edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke.
- b) Sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea.
- c) Interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

7. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, betekizun hauetako zeinek eragiten du administrazio-organo bat sortzeko beharra?

- a) Dagokion administrazio publikoan nola integratuko den eta hierarkikoki zeinen mendean egongo den zehaztu behar da.
- b) Haren funtzioak eta eskumenak zehaztu
- c) Abiatzeko eta funtzionatzeko behar dituen kredituez zuzkitu
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua araber, Estatuaren Administrazio Orokorreko organoek eskumenak delegatu ahalko dizkiete lotuta edo mendean dituzten organismo publiko eta entitateei:

- a) Eskumenok delegatzea komenigarria bada esleituta dituzten xedeak lortzeko edo kudeaketaren efikazia hobetzeko.
- b) Langileen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.
- c) Administrazio publikoetako organoek ezin dituzte delegatu esleituta dituzten eskumenak.
- d) Xedapen orokorrak erabakitzeari buruzko eskumenak badira.

9. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 103. artikulua araber, enpresa-entitate publikoak:

- a) Ez dute nortasun juridiko propiorik.
- b) Zuzenbide publikoko entitateak dira.
- c) Ez daude Estatuaren Administrazio Orokorren mendean edo hari lotutako edo haren mendeko organismo autonomo baten mendean.
- d) Ez dute egiten prestazio-jarduerarik, zerbitzuak kudeatzeko jarduerarik edo interes publikoko ondasunak ekoizteko jarduerarik.

10. Administrazio-xedapen batek goragoko mailako manuak urra ditzake?

- a) Bai, haren eskumen eskusiboko gai bati buruzkoa denean.
- b) Bai, lehiaren eta hierarkiaren printzipioak aplikatuta.
- c) Bai, baldin eta aukera hori jasotzen bada gaikuntza ematen duen lege-mailako arau batean.
- d) Ez, inoiz ez.

11. Lege-dekretuak:

- a) Ez dira berehala eraman behar gehiengoak eztabaidatu eta bozkatu ditzan
- b) Beti iraungitzen dira indarrean sartu eta hilabetera.
- c) Kasu berezi eta beharizan premiatsuan eman daitezke.
- d) Parlamentuaren gehiengoak onartu behar du.

12. Hauek sartzen dira sektore publiko instituzionalean:

- a) Unibertsitate publikoak, zeinek beren araudi espezifikuari jarraituko baitiote eta, modu osagarrian, lege honetan xedatutakoari.
- b) Administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak.
- c) Administrazio publikoei loturik edo haien mendean dagoen zeinahi organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitate.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

13. Beste batzuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoen aurrean:

- a) Jarduteko gaitasuna duten edo jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoek, eta pertsona juridikoek, beren estatutuetan hala aurreikusita egon ez arren.
- b) Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek, eta pertsona juridikoek, beren estatutuetan hala aurreikusia badute.
- c) Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek, eta pertsona juridikoek, beren estatutuetan ez bada hala aurreikusten.
- d) Jarduteko gaitasuna duten edo jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoek, eta pertsona juridikoek, beren estatutuetan hala aurreikusia badute.

14. Zer epe dago jakinarazpenak egiteko?

- a) 5 egun, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- b) 10 egun, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- c) 15 egun, egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- d) Hilabete, egintza ematen den egunetik zenbatuta.

15. Erabat deusezak izango dira orobat honako administrazio-xedapen hauek (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Konstituzioa urratzen dutenak.
- b) Legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak urratzen dituztenak.
- c) Legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak.
- d) Aldeko eskubide indibidualak murrizten ez dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeragina ezartzen dutenak.

16. Interesdunek aukera izango dute alegazioak egiteko eta dokumentuak edo bestelako irizpen-elementuak aurkezteko:

- a) Prozeduraren edozein urratsetan.
- b) Prozeduraren edozein urratsetan, prozedura hasteko erabakia hartu baino lehen.
- c) Prozeduraren edozein urratsetan, entzunaldiaren izapidea egin baino lehen.
- d) Prozeduraren edozein urratsetan, informazioa jendaurrean jartzeko izapidea martxan jarri baino lehen.

17. Prozedura modu sinplifikatuan izapidetzea erabaki dezakete administrazio publikoek.

- a) Ofizioz, prozedura ez bada konplexua.
- b) Ofizioz, interes publikoa tartean badago.
- c) Ofizioz edo interesdunak eskaturik, prozedura ez bada konplexua.
- d) Ofizioz edo interesdunak eskaturik, interes publikoa tartean badago edo prozedura ez bada konplexua.

18. Kaltegarritasun-deklarazioa ezin egingo da administrazio-egintza eman zenetik denbora-tarte hau igaro bada:

- a) 3 hilabete.
- b) Urtebete.
- c) 2 urte.
- d) 4 urte.

19. Errekurtsoa jartzean, adierazi behar dira:

- a) Errekurtso-jartzailearen izen-abizenak eta hura identifikatzeko datuak, eta zer egintzaren aurka jartzen den errekurtsoa eta zergatik.
- b) Tokia, eguna, errekurtso-jartzailearen sinadura, jakinarazpenak jasotzeko bidea eta, hala badagokio, lekua; eta administrazioko zer organo, erakunde edo unitateri zuzentzen zaion, eta zein den haren identifikazio-kodea.
- c) Xedapen espezifikoetan ezarritako gainerako zehaztasunak, halakorik baldin bada.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

20. Zer kasutan jarriko da berrikuspen-errekurtso berezia ebazpen aurkaratua jakinarazi ondorengo lau urteko epean?

- a) Egintza ematean egitezko okerren bat gertatzen bada, espedienteari erantsitako dokumentuei lotua.
- b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duten dokumentuak agertzen badira, ebazpen errekurrituaren okerra agerian uzten dutenak, geroago bada ere.
- c) Ebazpenean funtsezko eragina izan zuten zenbait dokumentu edo lekukotasun faltsuak zirela deklaritzen badu epai judizial irmo batek, ebazpenaren aurretik edo ondoren.

- d) Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokaera zigorgarri baten ondorioz eman bada ebazpena, eta epai judicial irmo batek hala deklaratzea.

21. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren 29/1998 Legearen arabera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoen inguruko baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ez da onargarria xedapen orokorreari dagokienez.
b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ez da onargarria lehenagoko egintza behin betiko eta irmo baten berdina den egintza bati buruzkoa bada.
c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ez da onargarria administrazioaren egitatebide den jardura material baten kontrakoa bada errekurtsoa.
d) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onargarria da garaiz eta forma egokian ez errekurritzeagatik bere hartan utziriko egintza bat berresteko egintzei buruzkoa bada.

22. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, partikularren eskubidea izango da administrazio publikoaren kalteordaina jasotzea bere ondasun eta eskubideetatik edozeinetan jasotako lesio ororengatik:

- a) Baldin eta lesio hori zerbitzu publikoaren funtzionamendu normalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrek legearen arabera egin behar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
b) Baldin eta lesio hori zerbitzu publikoaren funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan edo partikularrek legearen arabera egin behar juridikoz jasan behar dituen kalteak direnean.
c) Baldin eta lesio hori zerbitzu publikoaren funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortu bada, salbu eta ezinbesteko kasuetan.
d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

23. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 33. artikulua arabera, ondare-erantzukizunaren arloko prozedurak direnean, administrazio publiko eskudunak kontsulta egin beharko die zerikusia duten gainerako administrazioei, bidezkoztat jotzen dutena azaltzeko aukera izan dezaten, epe honetan:

- a) 10 egun.
b) 15 egun.
c) Hilabete.
d) 3 hilabete.

24. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, ondare-erantzukizuna gauzatzeko, partikularrek:

- a) Zuzenean eskatuko diote dagokion administrazio publikoari haren zerbitzuko agintari eta langileek eragindako kalte eta galerak ordaintzeko.
- b) Zeharka eskatuko diote dagokion administrazio publikoari haren zerbitzuko agintari eta langileek eragindako kalte eta galerak ordaintzeko.
- c) Administrazio Publikoari edo haren zerbitzuko agintari eta langileei eskatuko diote eragindako kalte eta galerak ordaintzeko.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

25. Pertsona fisikoek, administrazioarekiko harremanetan, erabili ahalko dituzte:

- a) Nortasun-agiri nazionalak dakartzan ziurtagiri elektronikoak bakarrik.
- b) Ziurtagiri elektroniko aitortuak eta administrazioak onartzen dituen sinadura elektroniko aurreratuko sistemak bakarrik.
- c) Nortasun-agiri nazionalak dakartzan ziurtagiri elektronikoak, ziurtagiri elektroniko aitortuak eta administrazioak onartzen dituen sinadura elektroniko aurreratuko sistemak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

26. Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera, funtzionarioek herritarrak identifikatu eta herritarren jarduna autentifika dezaten:

- a) Funtzionarioak gaituko dira, bere sinadura elektroniko aitortua erabiliz, herritarraren izapideak egiteko.
- b) Herritarrak bi gauza egin beharko ditu: funtzionarioari nor den erakutsi, eta berariaz ados dagoela adierazi. Ados egote hori jasota utzi beharko da.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioan, funtzionario gaituen erregistro bat egongo da, eta erregistro hori eguneraturik mantentzeko ardura administrazio elektronikoaren eskumena duen sailarena izango da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

27. Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera, administrazio elektronikoaren arloko zerbitzu erkideak dira:

- a) Erregistro elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa eta ziurtapen elektronikoak.
- b) espedienteen tramitazioa zertan den kontsultatzeko aukera, artxibo elektronikoa, ordainketa-pasabidea eta datuak egiaztatzeko zerbitzua.
- c) Iragarki ohol elektronikoa eta ordezkarien erregistro elektronikoa.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

28. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, hauek dira sektore publikoaren kontratu motak:

- a) Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.
- b) Administrazio-kontratuak, kontratu pribatuak eta kontratu mistoak.

- c) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.
- d) Obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, kontratu mistoak, obra-emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak.

29. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratua formalizatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, zer kontratu bidali behar zaizkio Kontu Auzitegiari edo autonomia-erkidegoan kanpoko fiskalizazio-eginkizuna duen organoari, fiskalizazio-eginkizuna bete dezan?

- a) 450.000 eurotik gorako obra-kontratuak.
- b) 250.000 eurotik gorako hornidura-kontratuak.
- c) Zerbitzu publikoak kudeatzeko 500.000 eurotik gorako kontratuak.
- d) 150.000 eurotik gorako zerbitzu-kontratuak.

30. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, 118. artikuluko lehen apartatuan definituta dauden kontratu txikiak ezingo dute iraun hau baino gehiago:

- a) Bost urte, eta ezin dira luzatu.
- b) Urtebete, eta ezin dira luzatu.
- c) Urtebete, eta beste urtebete luza daitezke.
- d) Bi urte, eta ezin dira luzatu.

31. Kontratu pribatutzat jotzen dira:

- a) Administrazio publikoaren izaera ez duten erakundeek egiten dituzten guztiak.
- b) Administrazio publikoak egiten dituen zerbitzu-kontratuak, hauetakoren bat xede badute: sorkuntza eta interpretazio artistiko eta literarioa eta ikuskizunak, aldizkarietako, aldizkako argitalpenetako eta datu-baseetako harpidetza.
- c) Lege batek berariaz horrela deklaraturakoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32. Zein da UPV/EHUko kontratazio-organoa?

- a) Ondare eta Kontratazio Zerbitzuko burua.
- b) Gerentea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.
- c) Gerentea baino ez.
- d) Errektorea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.

33. Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, hauetako bat EZ da administrazio-egoera bat:

- a) Jarduneko zerbitzua.
- b) Egitekoak utzaraztea.
- c) Erretiroa.
- d) Beste administrazio publiko batzuetan zerbitzua ematea.

34. Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, oinarrizko ordainsariak dira:

- a) Hirurtekoak, emankortasun-osagarria eta lege horretako 43. artikuluan aipatzen diren taldeetako bakoitzari dagokion soldata.
- b) Lan-izendapenagatiko osagarria, aparteko ordainsariak eta hirurtekoak.
- c) Lege horretako 43. artikuluan aipatzen diren taldeetako bakoitzari dagokion soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

35. Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, arau-hauste larria da:

- a) Zerbitzua uztea.
- b) Emandako lanak albora utziz, etekinik eza nabaria izatea.
- c) Agintariek zerbitzuari buruz emandako agindu eta oharrak ez betetzea.
- d) Egitekoak betetzean atzerapena, zabarkeria edo nagikeria.

36. Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, hauetako erantzun bat OKERRA da:

- a) Lan-itunpeko langileak izan daitezke finkoak eta aldi baterakoak.
- b) Lan-itunpeko kontratu bat izanda, lanpostu-zerrendetan lan-itunpekoentzat gordetako lanpostuak betetzen dituztenak dira itunpeko langile finkoak.
- c) Atal honetan esaten diren kontratuak ez dira beti idatziz egingo.
- d) Lan-legeetan indarrean dauden erduei atxikiz eta iraupen jakineko lanak egiteko kontratatutakoak dira aldi baterako lan-itunpeko langileak.

37. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen arabera, administrazio publikoen zerbitzuko langileen eskubideak dira:

- a) Lanean diharduten unitateari esleitutako helburuak lortzen parte hartzeko eskubidea.
- b) Norberaren bizimodua, familia eta lana uztartzeko neurriak baliatzeko eskubidea.
- c) Etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea (ahal dela, lan-ordutegiaren barruan).
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

38. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, kotizatze beharra etenda dagoela jotzen da:

- a) Langileak soldatarik gabeko baimena duenean.
- b) Langileak greba-eskubidea gauzatzen duenean.
- c) Langileak aldi baterako ezintasuna duenean.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa) 42. artikulua araberaz, Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-jardunak honako hauek hartuko ditu:

- a) Amatasuneko kasuen osasun-laguntza.
- b) Gaixotasun arrunteko edo profesionaleko kasuen osasun-laguntza.
- c) Istripuko kasuen –lanekoa izan nahiz ez izan– osasun laguntza.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

40. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33. artikulua araberaz, prestakuntzaren eta ikerketaren aldeko deialdietan, unibertsitate-hezkuntzako Administrazioak balioztatuko ditu:

- a) Emakumeak buru dituzten proiektuak bakarrik.
- b) Hezkidetzako proiektuak bakarrik.
- c) Bereziki ikerketa-taldean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua duten proiektuak.
- d) Bereziki ikerketa-taldean emakumeen eta gizonen ordezkariak paritarioa duten proiektuak.

41. Eusko Jaurlaritzak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak bultzatzen du:

- a) Euskal unibertsitateek emakumeen eta gizonen berdintasunerako agentea izatea.
- b) Euskal unibertsitateek modu egonkorrean eskain dezatela emakumeen eta gizonen berdintasunerako agente izateko prestakuntza berezia.
- c) Euskal unibertsitateetako ikasleek diziplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza paritarioa izan dezatela.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

42. Gizonezkoen eta emakumezkoen parekotasunaren arloan, printzipio hauetako zein EZ da euskal botere publikoaren jardura gidatu eta orientatu behar dutenetako bat?

- a) Ordezkaritza orekatua gobernu-organismoetan.
- b) Tratu-berdintasuna.
- c) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- d) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.

43. Europar Batasunaren Datuen Babeserako Araudi Nagusiaren arabera, datuen tratamendua legezkoa izango da:

- a) Ukitutako pertsonak berriazko baimena ematen badu.
- b) Hirugarren pertsona batek lortu baditu datuak.
- c) Beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion legezko betebeharrak baterako.
- d) Baldin eta helburua bada inkesta bat egitea.

44. Europar Batasunaren Datuen Babeserako Araudi Nagusiak erantzukizun proaktiboaren printzipioa jasotzen du. Printzipio horren arabera:

- a) Datuen babesaren arduraduna da bere ekintzen erantzule.
- b) Tratamenduaren arduraduna da datuen babeserako delegatuaren ez-betetzeen erantzule.
- c) Tratamenduaren arduradunak aplikatu behar ditu neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak, tratamendua Araudiarekin bat egiten dela bermatzeko eta frogatzeko.
- d) Datuen babesaren arduraduna ez da erantzule inoren aurren.

45. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako bakoitzari dagozkion aurrekontuek:

- a) Autonomia-erkidegoko Administrazioa, sozietate publikoak eta autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak.
- b) Autonomia-erkidegoko Administrazioa, organismo autonomoak, sozietate publikoak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.
- c) Autonomia-erkidegoko Administrazioa, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.
- d) Autonomia-erkidegoko Administrazioa, organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko ente publikoak, sozietate publikoak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko fundazioak, autonomia-erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.

46. Aurrekontu Orokorren arloan, zer erantzun ez da zuzena?

- a) Aurrekontuak dira denbora-tarte jakin baterako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen bat.
- b) Aurrekontuak oinarritzen dira diru-sarrera batzuen ziurtasunean eta gastu batzuen aurreikuspenean.
- c) Aurrekontuen helburuetako bat da errenta birbanatzea.
- d) Aurrekontuak dira administrazio publikoen tresnak, dimentsio politiko, ekonomiko eta juridikokoak.

47. Nork onartzen ditu UPV/EHUn aurrekontuak behin betiko?

- a) Errektoreak.
- b) Unibertsitateko Klaustroak.
- c) Gobernu Kontseiluak.
- d) Gizarte Kontseiluak.

48. UPV/EHUren Estatutuen arabera, EZ dira gerakin espezifikotzat joko, eta, beraz, EZ dute krediturik sortuko hurrengo ekitaldirako:

- a) Ikerketa-proiektu eta -azpiegituretarako diren kreditu erabili gabeak.
- b) Kanpoko baliabidez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak.
- c) Pertsonal-gastuei dagozkien gastuen 1. kapituluko kreditu erabili gabeak.
- d) Hartuta dauden baina arrazoi sendoengatik bete ezin izan diren konpromisoen gastuei dagozkien kreditu erabili gabeak.

49. Aurrekontu-logikan, zer-nolakoak dira DIRU-SARRERAK?

- a) Betearazleak.
- b) Murriztaileak.
- c) Gutxi gorabeherakoak.
- d) Progresiboak.

50. A faseari dagokionez (gastu-baimena):

- a) Harreman bat dago Administrazioaren eta kanpoko hirugarrenen artean.
- b) Ez dago harremanik Administrazioaren eta kanpoko hirugarrenen artean.
- c) Administrazioak betebeharrak du kanpoko hirugarrenenekiko.
- d) Administrazioak ez du betebeharrak kanpoko hirugarrenenekiko.

51. Zer izen du zehazki zehaztutako zenbatekoko eta aldez aurretik baimendutako gastu bat egitea erabakitzen den ekintzak?

- a) Gastu-baimena.
- b) Gastu-xedapena.
- c) Obligazioa aitortzea.
- d) Ordaintzeko agindua.

52. Uneko ekitaldiko D dokumentua erabiltzen da:

- a) Uneko aurrekontura egozteko gastua baimentzeko eragiketetan.
- b) Uneko aurrekontura egozteko gastu-konpromisoaren eragiketetan.
- c) Uneko aurrekontuaren diruzaintzaren aurrerakin baten emakidaren erregistroan.
- d) Uneko aurrekontuaren diru-sarreraren itzulketetan.

53. Bizitza osoko goi-mailako hezkuntzaren arloan, adierazi erantzun ZUZENA:

- a) Unibertsitateek bizitza osoan jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko programak eskaini ahal izango dituzte. Irakaskuntza horiek emateko ikasgelatik kanpoko baliabideak erabil daitezke lehentasunez.
- b) Unibertsitateek, beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak eginez, bizitza osoan jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko programak eskaini ahal izango dituzte. Irakaskuntza horiek emateko ikasgelatik kanpoko baliabideak erabil daitezke lehentasunez.

- c) Unibertsitateek, berez zein beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuekin hitzarmenak eginez, bizitza osoan jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko programak eskaini ahal izango dituzte. Irakaskuntza horiek emateko ikasgelatik kanpoko baliabideak erabil daitezke lehentasunez edo bete-betean.
- d) Unibertsitateek bizitza osoan jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko programak eskaini ahal izango dituzte. Irakaskuntza horiek emateko ikasgelatik kanpoko baliabideak erabil daitezke bete-betean.

54. Euskadiko Unibertsitate Kontseilua osatzen dute:

- a) Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateetako errektoreak.
- b) Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) ordezkari bat.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko lehendakaria.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

55. Unibertsitate publikoetako kide anitzeko organoak dira:

- a) Klaustroa, Gizarte Kontseilua, errektorea.
- b) Idazkari nagusia, kudeatzailea, Gobernu Kontseilua.
- c) Klaustroa, Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua.
- d) Gizarte Kontseilua, errektorea, Gobernu Kontseilua.

56. Saileko Kontseiluari dagokionez (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Sailaren gobernu-organoa da.
- b) Saileko idazkari akademikoa eta zuzendaria dira buru.
- c) Osatzen dute Saileko doktoreek eta doktore ez diren gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkariak.
- d) Edonola ere, estatutuek bermatuko dute ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

57. Nork arautuko du UPV/EHUren armarri ofizialaren erabilera?

- a) UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiak.
- b) Errektoreak.
- c) Gobernu Kontseiluak.
- d) Komunikazio eta Protokolo Kabineteak.

58. Campuseko Ikasleen Kontseiluari buruzko esaldi hauetatik, zein da OKERRA?

- a) Campuseko ikastegi bakoitzeko ikasleen bi ordezkariak osatuko dute.
- b) Osatuko dute, besteak beste, campuseko ikasleek Gobernu Kontseiluan dauzkaten ordezkariak.
- c) Ikastegiek Campuseko Ikasleen Kontseiluan izango dituzten ordezkariak ikasleen ordezkariak aukeratuko dituzte beren artetik Ikastegiko Batzarrean.
- d) Campusetako ikasleen kontseiluetako buruak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideak izango dira.

59. Hauetako zein da UPV/EHUren kide anitzeko gobernu- eta ordezkari- organo bat?

- a) Kontseilu Juridikoa.
- b) Kontseilu Ekonomikoa.
- c) Kontseilu sindikalak.
- d) Doktorego Eskolen Kontseilua.

60. Hauetako zein EZ da UPV/EHUren pertsona bakarreko gobernu- eta ordezkari- organo bat?

- a) Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako idazkariak.
- b) Doktorego Eskoletako idazkariak.
- c) Campuseko idazkariak.
- d) Fakultate eta eskoletako idazkariak.

61. Unibertsitateko Klaustorako hauteskundeei dagokienez:

- a) Irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreentzat hauteskunde-barrutia campusa izango da.
- b) Irakasle eta ikertzaile iraunkor doktore ez direnentzat hauteskunde-barrutia ikastegia izango da.
- c) Ikasleen ordezkarietzat hauteskunde-barrutia ikastegia izango da.
- d) Ikastegi bakoitzak gutxienez irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen bi ordezkari izango ditu Klaustroan.

62. Gobernu Kontseiluak irakasleentzako lehiaketan deialdiari buruzko arauak emango ditu:

- a) Kontuan izango du horretarako Irakasleen errektoreordearen proposamena.
- b) Kontuan izango du Errektorearen zuzeneko proposamena.
- c) Kontuan izango du horretarako dagokion saileko kontseiluaren proposamena.
- d) Kontuan izango du horretarako Irakasleen Batzordearen proposamena

63. Nork onartzen ditu doktoregoko ikasketei buruzko arautegia eta irakaskuntza-betebeharretan izango dituen ondorioak?

- a) Gobernu Kontseiluak, dagokion saileko kontseiluaren proposamenari jarraituz.
- b) Graduondoko Batzordeak.
- c) Doktoregoko Ikasketen Batzordeak.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

64. UPV/EHUren Gobernu Kontseilua osatzen dute:

- a) Irakasle iraunkor doktoreen 7 ordezkari.
- b) Administrazio eta zerbitzuetako langileen 7 ordezkari.
- c) Sail, institutu eta doktorego-eskolen 7 ordezkari.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

65. UPV/EHUko Irakasleen Batzordea:

- a) UPV/EHU antzintasun handiena duen fakultateko dekanoa izango da burua.
- b) Irakasle eta ikertzaileen errektoreordea izango da burua.
- c) Errektorea izango da burua
- d) Batzordeko kideak izango dira unibertsitatearekin lotura iraunkorra daukaten irakasleen taldekoak izanik gutxienez hamar urteko esperientzia duten hamar lagun, jakintza arlo desberdinetakoak.

66. UPV/EHUko irakasle funtzionarioei dagokienez, ordutegi eta egutegi akademikoarekiko desadostasunagatik egiten diren kexak honek aztertu eta ebaziko ditu:

- a) Saileko Kontseiluak.
- b) Gizarte Kontseiluak.
- c) Fakultateko dekanook edo unibertsitate-eskolako zuzendariak.
- d) Gobernu Batzordeak.

67. UPV/EHUko irakasle eta langileen nomina aurreratzeari dagokionez:

- a) 6.000 euro aurreratuko dira gehienez.
- b) Gutxienez urtebete igaro beharko da nomina-aurrerakin bat ezeztatzen denetik beste aurrerakin bat eskatzen denera.
- c) Ezingo da aurrerakinik eskatu kontzeptu berdinetatik hiru aldiz baino gehiago.
- d) Ohiko etxebizitza erosteko eskatzen bada aurrerakina, itzultzeko gehieneko epea 36 kuotakoa izango da.

68. UPV/EHUko irakasleen lanaldiari buruzko esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a) Lanaldi osoz aritzen diren unibertsitateko irakasle titularren irakaskuntzaren alorreko asteko betebeharrak 12 eskola-ordu izango dira gehienez.
- b) Lanaldi osoz aritzen diren unibertsitate-eskolako irakasle elkartuen irakaskuntzaren alorreko asteko betebeharrak 8 eskola-ordu izango dira gehienez.
- c) Doktorego-programetan emandako eskola-orduak ordu kopurua halako hiru zenbatzen dira.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

69. UPV/EHUko lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen kontratuaren iraupenari dagokionez:

- a) Alboko irakasleen kontratuak gehienez 4 urteko iraupena du.
- b) Irakasle laguntzaileen kontratuak gutxienez 2 urteko iraupena du.
- c) Irakasle agregatuen kontratuak iraupen mugagabea du.
- d) Irakasle elkartuen kontratuak gehienez 4 urteko iraupena du; kontratua bukatu ostean, beste kontratu bat egin daiteke.

70. UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileentzat, erretiro partziala eta txanda-kontratua egiteko baldintza da:

- a) Gutxienez erretiro partziala hartzen den egunaren aurreko 8 urteetan UPV/EHUn lan eginagatiko antzintasuna egiaztatzea.
- b) 63 urte beteta izatea.
- c) Aurretiko 25 urteko kotizazio aldia egiaztatzea.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

71. UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen arduraldi bereziko osagarriari dagokionez:

- a) Osagarriaren zenbatekoa ezingo da izan lanpostuaren sailkapen-mailari dagokion oinarrizko ordainsariaren % 50 baino handiagoa.
- b) Osagarri hori jasotzeak ez ditu indargabetzen lanaldi arautua gainditzen duen lanaldia konpentsatzeko bestelako eskubideak.
- c) Beharrezkoa da lanaldi arautuan baino 100 ordu gehiagoz fisikoki lanean egotea.
- d) Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari dagokio eskubide hori aitortzea.

72. UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen barne-sustapeneko prozesuei dagokienez:

- a) Jakintza orokorren eta espezifikoen inguruko probak izan daitezke.
- b) UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Sailak garatuko du langile horien karrera profesionalari buruzko araudia.
- c) UPV/EHUko Gerentziak garatuko du langile horien karrera profesionalari buruzko araudia.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

73. UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen aparteko orduei dagokienez:

- a) Inoiz ere ezin dira egin hilean aparteko 10 ordu baino gehiago.
- b) Inoiz ere ezin dira egin urtean aparteko 110 ordu baino gehiago.
- c) Gerentziak hileroko emango die erakunde sindikalei egiten diren aparteko orduen berri.
- d) Oro har, laneko ohiko ordutegiarekin konpentsatuko dira ordu horiek: bi ordu eta erdi atseden egindako aparteko ordu bakoitzeko.

74. UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek eskubidea izango dute hartzeko:

- a) 4 lanegun, bigarren mailarainoko senideren baten heriotzagatik.
- b) 7 lanegun ezkontidearen heriotzagatik.
- c) 3 lanegun, bigarren mailarainoko senideren baten gaixotasun larriagatik.
- d) 5 lanegun, langilearekin bizi diren gurasoen gaixotasun larri egiaztatuagatik.

75. UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileen eskubidea da:

- a) Ohiko etxebizitza aldatzea errazteko, 2 egun naturaleko baimena hartzeko eskubidea, baldin eta etxebizitza berria udalerrri berean badago eta, aldiz, 4 egunekoa, beste probintzia batean badago.
- b) Seme-alaben irakasleekin hitzartutako bileretara joatea; urtean gehienez ere 12 ordu.
- c) 18 urtetik beherako seme-alabekin 4 orduz medikuaren kontsultara joatea.
- d) Langilearekin bizi den senide bat zaintzeko, baldin eta oso larria den gaixotasunen bat badauka, langileek lanaldia % 50eraino murrizteko eskubidea izango dute, lansari osoa jasota, hilabetez gehienez

76. UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileen eskubideei buruzko esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a) Adopzioagatiko baimena 4 astez luzatu ahalko da adoptatutako umeak ezgaitasunen bat badauka.
- b) Langileak eskubidea izango du 2 egun naturaleko baimena hartzeko seme-alabak ezkontzen direnean, baina ospakizuna langilearen bizilekutik 150 kilometro baino urrunago egiten bada, baimena 3 egun naturalekoa izango da.
- c) Ezingo da ezkontzako beste baimenik hartu harik eta aurreko ezkontzatik 6 urte igaro arte.
- d) Garatzeko bidean dauden herrialdeetan zereginen bat burutzeko baimenak gutxienez hilabetekoak izan beharko dira.

77. Kalitate Batzordea hauek osatuko dute, gutxienez:

- a) Dekanotza Taldeko/Zuzendaritzako ordezkari bat edo gehiago, irakasle eta ikertzaileen zenbait ordezkari eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- b) Dekanotza Taldeko/Zuzendaritzako ordezkari bat edo gehiago, irakasle eta ikertzaileen zenbait ordezkari eta ikasleen ordezkari bat.
- c) Dekanotza Taldeko/Zuzendaritzako ordezkari bat edo gehiago, irakasle eta ikertzaileen zenbait ordezkari, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, titulazio-koordinatzaileak (halakorik izanez gero) eta ikasleen ordezkari bat.
- d) Dekanotza Taldeko/Zuzendaritzako ordezkari bat edo gehiago, irakasle eta ikertzaileen zenbait ordezkari, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta ikasleen ordezkari bat.

78. Nor izango da Kalitate Batzordearen burua?

- a) Kategoria handieneko irakasle edo ikertzailea.
- b) Ikastegiko Kalitateko dekanordea edo zuzendariordea.
- c) Ikastegiko dekanoa, zuzendaria edo horretarako eskuordetza daukan pertsona.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

79. UPV/EHUren Plan Estrategikoan (2018/2021), nola ikusten da enpresa-ehunaren, elkarteen eta sektoreko klusterrek prestakuntza praktikorako eta zeharkako gaitasunak garatzeko duten interesa?

- a) Ahulezia gisa.
- b) Indargune gisa.
- c) Mehatxu gisa.
- d) Aukera gisa.

80. UPV/EHUren Plan Estrategikoan (2018/2021), hauek dira ardatz estrategikoak:

- a) Prestakuntza, ikerketa eta pertsonak.
- b) Prestakuntza, ikerketa eta gizartearekiko harremana.
- c) Prestakuntza, ikerketa eta gobernantza eta baliabideak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

81. 2015/2018 aldirako Unibertsitate Planean, zer helburu estrategikotan dago "L6. Nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera bultzatzea"?

- a) Transferentzia.
- b) Ikerketa.
- c) Prestakuntza.
- d) Inklusioa, efizientzia eta kalitatea.

82. UPV/EHUren ondarea:

- a) UPV/EHUK jabetzan dituen ondasunek osatuko dute.
- b) UPV/EHUK jabetzan dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute.
- c) UPV/EHUK jabetzan edo titularitatean dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute, bai eta etorkizunean eskuratzen edo esleitzen zaizkion gainerako guztiek ere.
- d) UPV/EHUK jabetzan edo titularitatean dituen ondasunek osatuko dute, bai eta etorkizunean eskuratzen dituen gainerako guztiek ere.

83. Unibertsitatearen ondarean hauek sartu ahalko dira:

- a) UPV/EHUren prozedurari jarraituz jasotzen diren dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarria.
- b) Erosen duen material inbentariagarri eta bibliografikoa.
- c) Jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa.
- d) Jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa, aldi behingo argitalpenak izan ezik.

84. Noren eginbeharra da UPV/EHUREN ondarea zaintzea eta egokiro erabiltzea?

- a) Unibertsitateko kide guztiena.
- b) Ondare eta Kontratazioetarako Zerbitzuarena.
- c) UPV/EHUko irakasleena eta administrazio eta zerbitzuetako langileena.
- d) Ikastegi, sail eta zerbitzuena.

85. Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordea hauek osatzen dute:

- a) 10 kidek; horietatik bost administrazioak izendatzen ditu, eta beste bost erakunde sindikalek izendatzen dituzten bost prebentzio-ordezkarik.
- b) 12 kidek; horietatik sei administrazioak izendatzen ditu, eta beste sei erakunde sindikalek izendatzen dituzten sei ordezkari.
- c) 14 kidek; horietatik zazpi administrazioak izendatzen ditu, eta beste zazpi erakunde sindikalek izendatzen dituzten zazpi ordezkari.
- d) 8 kidek; horietatik lau administrazioak izendatzen ditu, eta beste lau erakunde sindikalek izendatzen dituzten lau ordezkari.

86. Zer organo arduratzen da Unibertsitateko laneko arriskuen prebentzio-politikak antolatzeaz, garatzeaz eta betearazteaz?

- a) Gobernu Kontseilua.
- b) Errektorea.
- c) Gerentea.
- d) Segurtasun- eta Osasun-batzordeak.

87. Otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onetsitako UPV/EHUREN Estatutuei jarraituz, nork zehaztuko du zein lanpostutan izango den derrigorrezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea?

- a) UPV/EHUko Euskara Batzordeak.
- b) Gobernu Kontseiluak.
- c) Gizarte Kontseiluak.
- d) Errektoreak.

88. UPV/EHUko Euskara Batzordearen eskumena da:

- a) Campusetan eta ikastegietan euskararen erabilera normaldu eta hobetzeko neurri egokiak proposatzea.
- b) Aholku ematea UPV/EHUko gobernu-organoei unibertsitateko hizkuntza-politikari buruzko gaitan.
- c) Hizkuntza normalkuntzako neurriak urtero ebaluatzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

89. Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuaren 5. artikuluari jarraituz, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko, printzipio hauei jarraituko zaie:

- a) Berdintasuna, diskriminaziorik eza, meritua eta gaitasuna.
- b) Berdintasuna, diskriminaziorik eza, meritua eta inpartzialtasuna.
- c) Ekitatea, berdintasuna, meritua eta gaitasuna.
- d) Diskriminaziorik eza, proportzionaltasuna, meritua eta gaitasuna.

90.25 urtetik gorako pertsonak graduko unibertsitate-ofizialetan onartzeari dagokionez, adierazi erantzun OKERRA:

- a) Ez dute izan behar unibertsitatean sartzeko eskatzen den titulaziorik.
- b) Sarbide-proba bat gainditu beharko dute.
- c) Sarbide-proba egin dezakete ikasturte akademikoa hasten den urteko urriaren 1ean 25 urte beteak dituztenek.
- d) Sarbide-proba egin dezakete proba egiten den urte naturalean 25 urte betetzen dituztenek.

91. 412/2014 Errege Dekretuaren 28. artikulua arabera, plaza kopuru jakin bat gordeko da unibertsitate-titulazioa edo titulazio baliokide bat duten ikasleentzat. Zer kopuru da hori?

- a) Ez % 0,5 baino txikiagoa, ez % 2,5 baino handiagoa.
- b) Ez % 1 baino txikiagoa, ez % 3 baino handiagoa.
- c) Ez % 1,5 baino txikiagoa, ez % 4 baino handiagoa.
- d) Ez % 2 baino txikiagoa, ez % 5 baino handiagoa.

92. Unibertsitateek adostu dezakete batera egitea onartze-prozedura osoa edo haren parte bat, eta beste unibertsitateetan egindako onartze-prozeduretako balorazioetako emaitzak onartzea. Non jakinaraziko dira erabakiak?

- a) Unibertsitate Kontseiluan.
- b) Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrean.
- c) Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrean eta Unibertsitate Kontseiluan.
- d) Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzian.

93. Unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuari jarraituz, baterako titulua da ikasketa-plan ofizial bakar bati dagokiona:

- a) Lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu duten eta dagokien egiaztatze-eskaerak aurkeztu dituzten Espainiako bi unibertsitate edo gehiagok diseinatua.
- b) Lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu duten eta dagokien egiaztatze-eskaerak aurkeztu dituzten bi unibertsitate edo gehiagok (haietako batek Espainiakoa izan behar du) diseinatua.
- c) Lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu duten eta dagokien egiaztatze-eskaerak aurkeztu dituzten Espainiako edo atzerriko bi unibertsitate edo gehiagok diseinatua.
- d) Lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu duten eta egiaztatze-eskaera bakar bat aurkeztu dituzten Espainiako edo atzerriko bi unibertsitate edo gehiagok diseinatua.

94. Gradu amaierako lana ikasketa-planaren bukaerako fasean egin beharko da, tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko du, eta:

- a) 5 kreditu izango ditu gutxienez, eta tituluaren kredituen % 12 izango da gehienez.
- b) 6 kreditu izango ditu gutxienez, eta tituluaren kredituen % 12,5 izango da gehienez.
- c) 6 kreditu izango ditu gutxienez, eta tituluaren kredituen % 15 izango da gehienez.
- d) 10 kreditu izango ditu gutxienez, eta tituluaren kredituen % 16 izango da gehienez.

95. Adierazi erantzun OKERRA:

- a) 240 kredituko graduako unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa gehienez 6 urteko epean berritu beharko da.
- b) 360 kredituko graduako unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa gehienez 8 urteko epean berritu beharko da.
- c) 240 kredituko masterreko unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa gehienez 6 urteko epean berritu beharko da.
- d) 240 kredituko doktoretzako unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa gehienez 6 urteko epean berritu beharko da.

96. Oro har, doktorego-programa ofizial batean sartzeko, beharrezkoa izango da:

- a) Estatuko graduako titulu bat, edo baliokidea, eta unibertsitate-masterreko titulu bat izatea, betiere gutxienez 240 ECTS kreditu izanez gero.
- b) Estatuko graduako titulu bat, edo baliokidea, eta graduondoko titulu bat izatea, betiere gutxienez 240 ECTS kreditu izanez gero.
- c) Estatuko graduako titulu bat, edo baliokidea, eta unibertsitate-masterreko titulu bat izatea, betiere gutxienez 300 ECTS kreditu izanez gero bi ikasketa horiek batera zenbatuta.
- d) Estatuko graduako titulu bat, edo baliokidea, eta graduondoko titulu bat izatea, betiere gutxienez 300 ECTS kreditu izanez gero bi ikasketa horiek batera zenbatuta.

97. Berezko tituluen, etengabeko prestakuntzako ikasketen eta ikasketa osagarrien helburuak hauek dira (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Ikasketa-plan ofizialetan ez dauden ikasketak eskaintzea.
- b) Graduondoko titulatuaren prestakuntza akademikoa osatzea, garapen profesional, zientifiko, tekniko eta artistikoa hobetzeko aukera eskainiz.
- c) Eremu professionalean aplikazioa izan dezaketen ikerketa arlo berriak jorratzea, erakunde eta enprekin lankidetzaren harremanak sortuz.
- d) Profesionalei birziklatzeko aukera ematea, gizartearen eta enpresen eskakizun berrietara egokitzeko.

98. Unibertsitate-ikasketa ofizialen prezio publikoak honek ezarriko ditu:

- a) Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, eskaintzen dituen titulazioetarako.
- b) Hezkuntza Ministerioak.
- c) Autonomia Erkidegoak.
- d) Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak.

99. Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren arabera (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Ikerketa da unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen eta ikasleen eskubide bat eta betebeharrak.
- b) Ikerketa egingo da, nagusiki, ikerketa-taldeetan, sailetan eta ikerketako unibertsitate-institutuetan.
- c) Ikertzeko askatasuna aitortu eta bermatzen da unibertsitate-esparruan.
- d) Unibertsitateak erraztuko du irakaskuntza eta ikerketa uztartzea.

100. Unibertsitateek enpresa eta parke zientifiko eta teknologikoak sortu ahalko dituzte edo haiek sortzen parte hartu ahalko dute, eta haietako jardueretan parte hartu ahalko dute unibertsitateetako irakasle eta langileek, helburu hauekin:

- a) Unibertsitate-ikerketa eta haren emaitzak sustatu eta erraztea.
- b) Kalitatearen eta berrikuntzaren kultura bultzatzea enpresen artean.
- c) Enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzea, hobekuntza teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

ERRESERBAKO GALDERAK

101. Espainiako Konstituzioaren 82. artikulua araberako lege-dekretuak dira:

- a) Legezko ordezkariak duten Gobernuaren erabakiak.
- b) Aldi baterako legegintzako xedapenak.
- c) Beharrezko premiazko kasuei estaldura ematen dieten lege-xedapenak.
- d) Erregeak emandako eta, gero, Kongresuak baliozkotutako lege-xedapenak.

102. Administrazio-egintzak emango dira:

- a) Idatziz, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak eskatzen ez duen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.
- b) Idatziz, bitarteko ez-elektronikoen bidez.
- c) Idatziz, bitarteko elektronikoen edo ez-elektronikoen bidez, haien izaerak ez badu eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.
- d) Ahoz.

103. Prozedura amaitzeko aukerak dira (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Atzera egitea.
- b) Iraungitza deklarazioa.
- c) Ebazpena.
- d) Eskararen oinarri den eskubideari uko egitea, ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen badu.

104. Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen arabera, lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez haietako bakoitzerako:

- a) Atxikita dagoen saila edo zuzendaritza.
- b) Dedikazio-erregimena.
- c) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan, izendatua duten berariazko osagarria.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

105. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek bermatuko dute:

- a) Hizkera ez-sexista erabil dadin.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egindako ekarpen sozial eta historikoa jaso dadin.
- c) Jakintza-arlo guztietako irakaskuntza-lanean eta ikerketa-lanean genero-ikuspegia txerta dadin.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

106. Administrazio Orokorraren, organismo autonomoen eta sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan gastuen eta sarreraren egoerak jasotzen dira, eta irizpide hirukoitz honen arabera sailkatzen dira:

- a) Organikoa, ekonomikoa eta gastu-izaera.
- b) Funtzionala, ekonomikoa eta gastu-izaera.
- c) Funtzionala, ekonomikoa eta gastu-erantzukizuna.
- d) Organikoa, funtzionala eta ekonomikoa.

107. Aurrekontu-logikan, zer-nolakoak dira GASTUAK?

- a) Betearazleak.
- b) Murriztaileak.
- c) Gutxi gorabeherakoak.
- d) Progresiboak.

108. Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeari jarraituz, unibertsitate-erkidegokoak dira:

- a) Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan matrikulatuta dauden ikasleen matrikulak ordaintzen dituzten gurasoak.
- b) Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate batera gonbidatutako irakasleak.
- c) Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

109. UPV/EHUren Plan Estrategikoan (2018/2021), AMIA analisia erabili da. Zertan datza?

- a) Barne-diagnostikoa (ahuleziak eta aukerak) eta kanpo-diagnostikoa (mehatxuak eta indarguneak).
- b) Barne-diagnostikoa (ahuleziak eta mehatxuak) eta kanpo-diagnostikoa (indarguneak eta aukerak).
- c) Barne-diagnostikoa (ahuleziak eta indarguneak) eta kanpo-diagnostikoa (mehatxuak eta aukerak).
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

110. UPV/EHUren Estatutuei jarraituz, noren eskumena da ondarea eta ekonomia- eta finantza-baliabideak kudeatzea?

- a) Errektorearena.
- b) Gerentearena.
- c) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordearena.
- d) Aurrekontuetako gerenteordearena.